

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure jarduera nagusia aplikazioaren garapena izango da, izan ere, bertatik eskainiko dugu gure zerbitzu nagusia. Aplikazioa garatzeko prozesua ezinbestekoa da, eta bertan ahalegin eta arreta handia jarriko dugu, bezeroei esperientzia ahalik eta onena eskaintzeko. Aplikazioak erabiltzaileentzat eroso, erabilerraza eta eraginkorra izan behar du, izan ere, gure proiektua aplikazioaren kalitatean eta praktikan oinarritzen da. Aplikazioa gaizki eginda badago edo erabiltzaileentzat praktikoa ez bada, ez dugu arrakastarik lortuko, eta gure helburu nagusia horren arrakasta bermatzea da.

Horrez gain, gure zerbitzua promozionatzea funtsezko jarduera izango da. Merkatuan lehiakide asko dauden garai honetan, gure aplikazioa eta zerbitzua ezagutaraztea eta publikoaren arreta erakartzea izango da gure bigarren helburu nagusia. Horretarako, sustapen-kanpainak, sare sozialetan publizitatea eta lankidetzak estrategiak erabiliko ditugu, jendeak gure zerbitzua ezagutu eta erabiltzeko aukera izan dezan. Zerbitzua kalitatezkoa izatea bezain garrantzitsua da merkatuan gure presentzia ziurtatzea eta gure izena ezagun bilakatzea, arrakasta lortzeko oinarria baita.